



ETXEBARRIKO UDALEKO ZERGA IKUSKARITZARI AHOHKULARITZA TEKNIKOA, JURIDIKOA ETA INFORMATIKOA EMATEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA

Administrazio kontratatzailea	Etxebarriako Udala
Kontratazio organoa	Osoko Bilkura
Kudeaketa saila	Idazkari-kontuhartzailea
Kontratuaren aduraduna	Xabin Juaristi Arrieta
Kontaktua	udala.etxebarria@bizkaia.org 946166432
Kontratatzaile profila	http://www.contratacion.euskadi.eus

KONTRATU MOTA	Zerbitzua
ESLEIPEN PROZEDURA	Irekia
Tramitazioa	Aurretiazkoa
Eskaintzak aurkezteko epea	15 egun natural, iragarkia Euskadiko kontratazio publikoko plataforman argitaratzen denetik aurrera
Eskaintzen aurkezpena	Elektronikoa
Erregulazio armonizatuko kontratua	EZ
Errekurtso berezia	BAI

XEDEA	Kontratuaren xedea aholkularitza tekniko, juridiko eta informatikoko zerbitzua ematea da, hau da, Etxebarriko Udaleko zerga-ikuskaritzako udal-organoari administrazio-lanak egiteko laguntza ematea.
CPV Kodea	79200000-6 Kontabilitate, auditoria eta zerga zerbitzuak
EPEA	2 urte
Luzapena	Urte 1eko 2 luzapen
LIZITAZIO PREZIOA (BEZ kanpo)	KONTRATU OSOA: 67.000,00 € (+ 14.070,00 € BEZ)
Prezioak berrikustea	Ez dagokio
KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	147.400€ (BEZ kanpo) *Balizko luzapenak eta aldaketak barne
AURREKONTU EGOZPENA	932 22709

ETXEBARRIA



Udala

BEHIN BEHINEKO BERMEA	Ez dagokio
BEHIN BETIKO BERMEA	Eskaintako azken prezioaren %5



1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea honakoa da:

Kontratuaren xedea aholkularitza tekniko, juridiko eta informatikoko zerbitzua ematea da, hau da, Etxebarriko Udaleko zerga-ikuskaritzako udal-organoari administrazio-lanak egiteko laguntza ematea.

Kontratuarekin bete beharreko premia honakoa da:

Zerga-kargak behar bezala banatu ahal izateko, zerga-arloko ez-betetzak eta iruzur fiskala kontrolatuz eta murriztuz, aldizkako kobrantza-errolak hobetzearen eta zergadunek borondatez bete dezaten sustatzearen, Udalak, bilkura akordio bidez, kudeaketa, bilketa eta ikuskapeneko ordenantza fiskal orokorra onartuko du ekaineko osoko bilkuran.

Jardueren garrantzia eta konplexutasuna kontuan hartuta, komenigarria da hori gauzatzeko izendatutako pertsonak jarduera horiek egiteko ezagutza espezifiko eta esperientzia duten bitarteko eta pertsonen laguntza izatea. Laguntza-lanak ez dute aginpidea erabiltzea, ez eta, legez funtzionario publikoentzat gordetako lanik burutzea barnebilduko.

2. LOTEETAN ZATITZEA

Ez dagokio.

LOTEETAN EZ ZATITZEAREN JUSTIFIKAZIOA: ezin da kontratua loteetan gauzatu, ikuskatze-jardueren emaitzak ez direlako zehatzak eta ezin delako alde zuzenetik aurreikusi edozein irizpideren arabera zatitzean lortuko litzatekeen lote bakoitzaren zenbatekoa.

3. KONTRATUAREN PREZIOA.

Hasieran kuantifikatu ezin den kontratuaren zenbateko osoa ikuskapen-jarduketan eta horien ondoriozko emaitzen arabera izango da, atal honetan adierazten diren baldintzetan eta portzentaiazko prezioekin.

Ikuskapen-jarduketarako emaitzen aurreikuspenaren arabera, aurreikusitako ordainsaria **kontratuaren iraupenean, gehienez 67.000,00 €-koa (BEZik gabe) + 14.070,00 €-ko (%21eko BEZ-a)** kalkulatu da.

Era berean, kontratuaren prezioaren % 10eko mugara arte aldatzea aurreikusten da, baldin eta kontratua gauzatzearen ondorioz, Diruzaintzan sartutako zenbatekoetatik, aurreikusitako ordainsari-sistemaren arabera, hasieran kuantifikatutako aurrekontu-mugatik edo kontratuaren gehieneko preziotik gora fakturatu beharreko kopuruak lor badaitezke.

Kontratuaren **balio zenbatetsia 147.400 € (BEZik gabe)** da, balizko 2 luzapenak eta %10 arteko aldaketa horiek barne.



Kontratu honen modalitatearen arabera, kontratistari ordaintzeko prezio zehatzak ehuneko jakin batzuetan finkatzen dira, jarduketan azken emaitzaren gainean. Bereizi egiten da aldizka edo noizean behin sortzen diren zerga-kontzeptuak diren.

Ehuneko prezio horiek lizitazioaren prezioak izango dira, hau da, lizitatuzaileen eskaintzetan hobetu daitezkeenak.

Ikuskapen-jarduketarako lankidetzaz- eta laguntza teknikoko lanak egin dituzten espedienteak ordainduko dira, baldin eta horietan ezkutuko eta aitortu gabeko zerga-oinarriak aurkitzen badira, edo ikuskapen-aktak egiten diren egoera irregularrak aurkitzen badira, zerga- eta interes-likidazioekin eta dagozkien zehapenak ezartzearekin amaitzen direnak, zergadunaren adostasuna onartuta edo desadostasun-aktarekin, irmoak badira, honako xehetasun honen arabera:

A) Ikuskapen-prozeduran likidatu eta aurkitutako zenbatekoengatik, baldin eta zergaduna etorkizunean jarraipena duten errolda fiskaletan sartzea badakarte: **Udal Diruzaintzan kontzeptu guztietan (kuotak, interesak eta zehapenak) benetan sartutako zenbatekoen % 50.**

B) Ikuskapen-prozeduran likidatu eta aurkitutako zenbatekoengatik, baldin eta zergaduna errolda fiskaletan sartzea ez badakarte, zergapeko egitate isolatuak direlako eta horien sortzapena banaka eta errepikapenik gabe gertatzen delako: **Udal Diruzaintzan kontzeptu guztietan (kuotak, interesak eta zehapenak) benetan sartutako zenbatekoen % 35.**

Esleipendunaren portzentajezko ordainsari horietan ez da sartzen dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) kuota, eta ordainsari-sistema horren arabera zerbitzuengatik azkenean fakturatutako zenbatekoari gehituko zaio.

4. KREDITUA EGOTEA

Aurrez esan bezala, hasieran kuantifikatu ezin den kontratuaren zenbatekoa ikuskapen-jarduketan eta horien ondoriozko emaitzen arabera izango da.

Hori dela eta, aurretiazko izapide bidezko kontratazioa izango da, ikuskapen jarduketan emaitzak hurrengo ekitalditik aurrera hasiko direla aurreikusten baita, eta ondorioz, gastua gauzatzen ere orduz geroztik hasiko da; kontratua esleitzeko baldintza etengarria izango da dagokion aurrekontu-ekitaldian kontratua finantzatu behar duten baliabideak benetan finkatzea, SPKLren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik.

Etxebarriko Udalak konpromisoa hartu du kontratazioaren ondoriozko betebeharrak ekonomikoek erantzuteko behar den aurrekontu-kreditua esleitzeko, 2022ko eta 2023ko aurrekontuko 932.22709 aurrekontu-partidaren kargura, honako zenbateko hauekin:

<i>Ekitaldia</i>	<i>Aurrekontu egokitzapena</i>	<i>Zenbatekoa (BEZ Kanpo)</i>
2022	932.22709	33.500,00€



2023	932.22709	33.500,00€
------	-----------	------------

Era berean, aurrekontu gaietan eskumena duen organoak dagozkion kredituak gordeko ditu, eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

5. EPEA

2 urteko iraupena aurreikusten da, kontratuan adierazten den egunetik aurrera, edo, bestela, kontratua formalizatzen denetik aurrera, **gehi urtebeteko bi luzapen**, hasitako espedienteen egoeraren arabera.

6. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatu ahal izango da, urteko prezioaren % 10eko mugara arte, baldin eta, kontratua gauzatzearen ondorioz, Diruzaintzan sartutako diru-kopuruetatik edo, kontratuaren xedearen arabera, ikuskapen-jardueratik ustez lor daitezkeenetatik, aurreikusitako ordainsari-sistemaren arabera, hasieran kuantifikatutako aurrekontu-mugatik edo kontratuaren urteko gehieneko preziotik gora fakturatu beharreko diru-kopuruak lor badaitezke. Nolanahi ere, administrazio kontratatzailearen berariazko erabakia beharko da aurreikusitako aldaketa egiteko. Aldaketa-proposamenean, modu zehatz eta kuantifikatuan zehaztuko dira lortutako diru-sarrerak eta aldaketa aholkatzen edo eragiten duten inguruabarrak.

7. KONTRATATZEKO GAITASUNA

A. JARDUTEKO GAITASUNA

Enpresarien jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da:

a) Pertsona juridikoak diren enpresarien kasuan, eratze-eskrituraren edo -agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez, baldin eta haien jarduera arautzen duten arauak jasota badaude, eta pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta badaude.

Pertsona fisikoak diren enpresarien kasuan, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

b) Espainiakoak ez diren enpresarien kasuan, Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalitatea badute, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuz egiaztatuko da, edo zinpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztuz, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

c) Atzerriko gainerako enpresariena, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misiso Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kontsuletzeko Bulegoaren



txostenarekin.

B. KONTRATATZEKO DEBEKUA

Ezingo dute Administrazioarekin kontraturik egin Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikulua eta hurrengoek zerrendatzen dituzten inguruabar eta baldintzek eragiten dieten pertsonak.

C. KAUDIMENA

- Enpresariaren **ekonomia eta finantza kaudimena** honela egiaztatu beharko da:

a) Kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumena, enpresariaren eratze-dataren edo jardueren hasiera-dataren eta **150.000 eurokoa edo hortik gorako** eskaintzen aurkezpenaren arabera eskuragarri dauden **azken hiru ekitaldien barruan ekitaldi onenari dagokiona**. Urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan edo inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean onartutako eta gordailutatuko urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresarien kasuan, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute hori. Kaudimen-baldintza hau betetzen ez duten lizitatuak, lizitazioetik kanpo geratuko dira.

- Enpresariaren **kaudimen teknikoa** honela egiaztatu beharko da:

Kontratuan parte hartuko duten teknikariak edo unitate teknikoak, enpresakoak izan edo ez, adieraztea, batez ere kalitate-kontrolaz arduratzen direnak, enpresariaren eta enpresako zuzendarien titulu akademikoak eta profesionalak, eta, bereziki, kontratua gauzatzeko arduraduna edo arduradunak, bai eta kontratua gauzatzeko ardura duten teknikariak ere, betiere esleipen-irizpide gisa ebaluatzen ez badira.

Zehazki, egiaztatu beharko da kontratu honen zerbitzuak emateko gutxienez honako hauek izendatuko direla:

- **PROIEKTUKO BURU BAT:** Gradua Zuzenbidean eta/edo Ekonomia Zientzietan edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan (edo antzekoetan), gutxienez bost urteko esperientziarekin udal-zergen ikuskaritzan lankidetzaz zerbitzuak ematen, eta hori izango da Udalaren aurrean ordezkari izango duena kontratuaren xede diren lanak gauzatzeko eta ondo egiteko.
- **KOLABORATZAILE BAT:** Gradua Zuzenbidean eta/edo Ekonomia Zientzietan edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan (edo antzekoetan), gutxienez bost urteko esperientziarekin udal-zergen ikuskaritzaren arloko lankidetzaz eta aholkularitza juridiko eta teknikoko zerbitzuak ematen, eta hori izango da egin beharreko lanen aholkularitza- eta berrikuspen-lanak egingo dituenak.

Atxikitako langileen izenen zerrenda, tituluen kopia konpultsatuta, curriculum profesionala eta



udal-zergen ikuskapenean esperientzia dutela egiaztatzen duten toki-erakundeen aitortzea aurkeztuko dira.

8. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio-mahaia izango du eskaintzak baloratzeko eta administrazio-agiriak kalifikatzeko eskumena, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo du. Hurrengo kontraturako, kontratazio-mahaia kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria** - Jesus Iriondo Lejardi (Alkatea)
- Batzordekideak** - Jokin Altzibar Ibarzabal (Zinegotzia)
- Xabin Juaristi Arrieta (Idazkari-Kontuhartzailea)
- Idazkaria** - Mari Jose Aranberri Arregi (Administraria)

HAUTATZEKO ETA ESLEITZEKO PROZEDURA

8.1. Prozedura

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onena zehazteko, hainbat esleipen-irizpide hartuko dira kontuan, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Kontratazio-mahaia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratuko den orduan eta egunean eratu da, eta, lehenik eta behin, a gutun-azala irekiko du eta bertan jasotako dokumentazio administratiboa kalifikatuko du. Beharrezkoa balitz, Mahaia 3 egun naturaleko epea emango dio lizitatuzaileari, aurkeztutako dokumentazioan atzemandako eta zuzen daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Ondoren, ekitaldi berean, balio-judizio baten arabera haztapena duten irizpideak dituen gutun-azala irekiko da, halakorik balego, eta proposamenak irakurri ondoren, Mahaia beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu horiek baloratzeko, kontratazioa arautzen duten baldintza-agirietan ezarritako irizpideen eta haztapenen arabera.

Mahaia berriz bildu ondoren, balio-judizioaren arabera irizpideei esleitutako haztapena jakinaraziko da, eta, ondoren, proposamen ekonomikoa eta automatikoki haztatzen diren irizpideak jasotzen dituen gutun-azala irekiko da. Ondoren, eskaintzak sailkatu egingo dira, lortutako puntuazioaren arabera, handienetik txikienera. Mahaia dagokion esleipen-proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak hamar egun balioduneko epea emango dio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Sektore



Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140.1 artikuluan aipatzen diren alde zuzeneko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezan, bai eta 76.2 artikuluan arabera kontratua gauzatzeko hitzeman dituen baliabideak benetan dituela egiaztatzeko ere, eta bidezko den behin betiko bermea eratu beharko du. Ziurtagiriak bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez eman ahal izango dira, baldintza-agirietan besterik ezartzen ez bada.

Honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Enpresaren eta ordezkaritzaren nortasun juridikoa egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztapena
- **Sailkapena eskatzen bada edo haren bidez kaudimena egiaztatu nahi bada:** sailkapen-ziurtagiria (ROLECEko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioa), Erregistro horretan dauden datuen baliozkotasuna adierazteko eranskinarekin batera.
- **Sailkapenik eskatzen ez bada:** ekonomia eta finantza kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren baldintzak honela egiaztatzea:
 - Eskatutako urteko negozio-bolumena, Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailatutako urteko kontuen bidez egiaztatutako dena. Banakako enpresariak.
 - Kontratua gauzatzeko erabiliko diren giza baliabideen egiaztapenak, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren eta Administrazio Baldintza Teknikoen Agiriaren arabera. Zehazki:
 - Toki-erakundeen ziurtagiriak, atxikitako pertsonen esperientzia egiaztatzen dutenak, eskaintzan aitortuak.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatuzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenengo eta behin, behin-behineko bermearen aurka ordainduko da, berme hori eratu bada.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua kontratazio-organoak. Lizitazio bat ezin izango da inoiz desertua aitortu, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat eskatzen bada. Esleipena arrazoitu egin beharko da, eta hautagaiei edo lizitatuzaileei jakinaraziko zaie. Kontratatuzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.



DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA

Lizitazio hau elektronikoa da. Lizitatuzaileek elektronikoki prestatu eta aurkeztu beharko dituzte nahitaez eskaintzak, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren eskaintzak prestatzeko eta aurkezteko tresnaren bidez (lizitazio elektronikoen atala) <http://www.contratacion.euskadi.eus>.

Zerbitzu horiek erabiltzeak esan nahi du:

- Lizitatuzaileak eskaintzak telematikoki prestatzea eta aurkeztea.
- Sistemak eskaintzen zaintza elektronikoa egitea.
- Plataformaren bidez dokumentazioa irekitzea eta ebaluatzea.

Aurkezpena **bitarteko elektronikoen bidez egingo da soilik**, eta, beraz, lizitatuzaileek Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman erregistratu beharko dute, dagoeneko ez badaude. Hala badagokio, paperean bakarrik soilik banku-abala aurkeztu ahal izango da; horren bidez, behin betiko bermea emango du esleipendun gisa proposatutako enpresak.

Eskaintza elektronikoa eta hari erantsitako beste edozein dokumentu elektronikoki sinatuta egon beharko dute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10. artikuluan onartutako sinadura-sistemetak baten bidez.

Gutun-azalen edukiaren konfidentziasuna bermatzeko gutun-azalak ireki arte, tresnak bidalketan zifratuko ditu gutun-azal horiek.

Aurkezpena egin ondoren, tresnak bidalketaren frogagiria emango dio erakunde lizitatuzaileari, denbora-zigiluarekin, biltegitatu eta inprimatu ahal izateko.

DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

15 egun natural, lizitazio-iragarkia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratzen den egunetik aurrera. Eskaintzak elektronikoki baino ez dira aurkeztuko, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformak horretarako hautagaien eta erakunde lizitatuzaileen eskura jartzen duen eskaintzak prestatzeko eta aurkezteko tresnaren bidez.

ARGIBIDEAK: Kontratazio-organismoek **baldintza-agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria emango diete lizitazio-prozeduran interesa duten guztiei**, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 6 egun lehenago beranduenez, baldin eta proposamenak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino 12 egun lehenago eskatu badute, salbu eta lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietan beste epe bat ezartzen bada.

PROPOSAMENEN EDUKIA

“A” gutun-azala: Administrazio-dokumentazioa



Kontratazeko baldintzak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, Europako Kontratazio Agiri Bakarra (DEUC) dakarrena. DEUC agiriaren formulario normalizatua baldintza-agiriekin batera eskuragarri egongo da elektronikoki bete ahal izateko.

Hainbat enpresa aldi baterako elkarte bat eratuz parte hartzen badute, elkarte osatzen duen enpresa bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guztiek aurkeztu beharko dute erantzukizunpeko adierazpena. SPKLren 69.3 artikulua ezartzen duen bezala, lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresariak elkarte hori osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzaren parte-hartzea ere, eta kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute.

“B” gutun-azala: Balio-judizioari lotutako irizpideak

- Lizitatuzaileak MEMORIA TEKNIKO bat aurkeztu beharko du, zerbitzua nola emango den deskribatuko duena. Gehienez ere DIN A4 25 orrialde izango ditu (alde bikoitzean), hizkiaren tamaina 10-ekoa edo 11-koa izango da.

“C” gutun-azala: formula bidez ebalua daitezkeen irizpideak eta proposamen ekonomikoa.

Formula bidez ebaluatzeko irizpideak /Eskaintza ekonomikoa I. eranskinen arabera

8.2. FORMULA BIDEZ kuantifikagarriak diren irizpideak

Lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintza (I. eranskina) honela baloratuko da:

➤ **Ordainsarien ehunekoak..... 60 puntu**

Lizitazio-prezio gisa aurreikusitako esleipendunaren Ordainsari-Ehunekoak honela baloratuko dira:

- A) Zergaduna Ikuskapen-prozeduran likidatu eta aurkitutako zenbatekoengatik, baldin eta zergaduna etorkizunean jarraipena duten errolda fiskaletan sartzea badakarte, gehienez 30 puntu emango dira.

Lizitazio mota ondorengoa izanik: Udal Diruzaintzan kontzeptu guztietan (kuotak, interesak eta zehapenak) benetan sartutako kopuruen %50. Puntuaziorik altuena ESKAINTZARIK BAXUENARI dagokio.

Gainerako eskaintzak baloratzeko, formula hau erabiliko da:

$$EP = GEHP * (LGP - EE) / (LGP - EEB)$$



EP= Aztertutako enpresaren eskaintzaren puntuazioa
 GEHP= Kategoriako gehieneko puntuazioa
 LGP= Lizitazioaren gehieneko prezioa
 EE= Aztertutako enpresaren eskaintza ekonomikoa
 EEB= Eskaintza ekonomikorik baxuena

Formularen justifikazioa:



B) Ikuskapen-prozeduran likidatu eta aurkitutako zenbatekoengatik, baldin eta zergaduna errolda fiskaletan sartzea **EZ** badakarte, zergapeko egitate isolatuak direlako eta horien sortzapena banaka eta errepikapenik gabe gertatzen delako, gehienez 30 puntu emango dira.


Lizitazio mota ondorengoa izanik: Udal Diruzaintzan kontzeptu guztietan (kuotak, interesak eta zehapenak) benetan sartutako kopuruen **%35**. Puntuaziorik altuena **ESKAINZARIK BAXUENARI** dagokio.

Gainerako eskaintzak baloratzeko, formula hau erabiliko da:

$$EP = GEHP * (LGP - EE) / (LGP - EEB)$$

EP= Aztertutako enpresaren eskaintzaren puntuazioa
 GEHP= Kategoriako gehieneko puntuazioa
 LGP= Lizitazioaren gehieneko prezioa
 EE= Aztertutako enpresaren eskaintza ekonomikoa
 EEB= Eskaintza ekonomikorik baxuena

Formularen justifikazioa:



8.3. BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ ebalua daitezkeen irizpideek

Lizitatuzaileak **MEMORIA TEKNIKO** bat aurkeztu beharko du, zerbitzua nola emango den deskribatuko duena. Gehienez ere DIN A4 25 orrialde izango ditu (alde bikoitzean), hizkiaren tamaina 10-ekoa edo 11-koa izango da.

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

1. Kontratua gauzatzeko modua..... 15 puntu

Zerbitzua nola gauzatu den azalduko da, eta metodoa, faseak eta lan-plana, koordinatzeko modua eta abar zehaztuko dira.

Metodo hori Etxebarriaren tamainako Udal baten antolamendu-errealitatera egokitzea baloratuko da (5 puntu), kontratua modu arin eta eraginkorrean gauzatu ahal izateko tresna informatikoak eskura jartzea (5 puntu) eta beste alderdi berritzaile eta praktiko batzuk aurreikustea, plana gauzatzeko ahalik eta eraginkortasun handiena lortze aldera (5 puntu).

2. Atxikitako langileak..... 25 puntu

Zerbitzua emateko zuzenean izendatutako langileen kualifikazioa eta esperientzia baloratuko dira, eskatutako gutxieneko baldintzen gainerik. Prestakuntza akademikoari dagokionez (4 puntu); egiaztatutako esperientzia profesionalari dagokionez (15 puntu); euskararen ezagutza egiaztatuari dagokionez (3 puntu).

Adierazitako alderdiak egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Atxikitako langileen izenen zerrenda.
- Titulu akademikoaren eta, hala badagokio, euskararen jakite-mailaren aitortpena.



- Curriculum profesionala.
- Udal-zergen ikuskaritzaren arloan egindako lanetan esperientzia dutela egiaztatzen duten toki-erakundeen aitortpena.

Enpresa esleipendunak, ondoren, inguruabar horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Era berean, enpresak egingo duen langile-politikaren deskribapen laburra egingo da, esleitu beharreko zerbitzuarekin zerikusia izan dezaketen eta kontratuari atxikita dauden langileen gainean. Zehazki, bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak diseinatu eta aplikatzeko konpromisoarekin lotutako alderdiak baloratuko dira, kontratua gauzatzen parte hartzen duten pertsonentzat (3 puntu).

ESKAINZA ANORMALKI BAXUAK

Eskaintzen ezohiko izaera honako parametro hauen arabera neurtuko da:

Prezio-irizpideari dagokionez, zenbatekoa onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino %10 txikiagoa bada.

Eskaintzak baloratzeko irizpideetan ezarritako parametroak aplikatuz, horietakoren bat anormaltzat jotzen bada, eragindako lizitatzaillei 5 eguneko epea emango zaie eskaintza baldintza horietan gauzatzeko aukera ematen dieten inguruabarren justifikazio egokia aurkezteko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149.4 artikuluan adierazten diren irizpideekin.

Justifikazioak jaso ondoren, Mahaiak txosten tekniko bat eskatuko du, lizitatzailleak eskaintzari eutsi ahal izateko argudiatu dituen arrazoiak zehatz-mehatz aztertzeko. Nolanahi ere, eskaintzak baztertu egingo dira baldin eta egiaztatzen bada anormalki baxuak direla, azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumenaren, gizartearen edo lanaren, nazioaren edo nazioartekoaren arloan aplikatzekoak diren betebeharrak betetzen ez dituztelako, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Lote edo eskaintza integratzailerako ezarritako balorazio-irizpide guztiak haztatu ondoren, bi eskaintzari edo gehiagori emandako puntuazioan berdinketa gertatzen bada, honako irizpide hauek erabiliko dira berdintasun hori ebazteko. Berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiria, apartatu honetan aipatzen direnak, berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dituzte lizitatzailleek, eta ez alde zurretik:

- SPKLren 147.2 artikuluan ezarritako irizpideak.

9. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua administrazio-dokumentuan formalizatuko da lizitatzaille eta hautagaiei



esleipenaren jakinarazpena egin eta hamabost egun igaro baino lehen. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du, eta dagozkion gastuak bere kontura izango dira. Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatu adierazitako epean, zigor gisa lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZik gabe; zenbateko hori behin betiko bermearen bidez ordainduko da, eratu bada.

10. ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK KONTRATUA GAUZATZEAN

10.1. KONTRATISTARI ORDAINTZEA

Etxebarriako Udalak, gauzatutako eta formalki jasotako prestazioen ordainketa, aurrez behar bezala osatutako faktura eta hala dagokionean, jasotze-akta, aurkeztean burutuko du.

Kontratistak, obra-amaierako ziurtagiria eman ondoren, faktura formatu elektronikoa aurkeztu beharko du Etxebarriako Udalaren web-orriaren bidez www.etxebarría.biz

10.2. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI IZAN DAITEZKEEN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratua gauzatzeko funtsezko betebeharrak:

- a) Esleipendunaren proposamena betetzea, kontraturako ezarritako esleipen-irizpideen arabera baloratu den guztian.
- b) Administrazio-klausula zehatzen agiri honetan azpikontratazioari buruz ezarritako betebeharrak.
- c) Berariazko klausula administratiboen agiri honetan kontratua gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeari buruz ezarritako betebeharrak.
- d) Langileei soldatak eta PFEZaren atxikipena ordaintzea, bai eta Gizarte Segurantzari dagozkion kuoten ordainketa puntuala ere, eta, nolana ere, enpresa kontratistak kontratua gauzatzeko aldi osoan aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arau eta baldintzak bete beharko ditu.
- e) Era guztietako hizkuntza eta irudiak modu sexistan ez erabiltzea kontratua gauzatzean sortzen diren dokumentuetan eta euskarrietan, eta genero-ikuspegia kontuan hartzea kontratua gauzatzean sortzen diren txosten, idazki, datu-bilketa, estatistika eta abarretan. Betebihar hori bete ezean, kontratuaren aurrekontuaren %2ra arteko zigorra ezarriko da.
- f) Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legean eta hura garatzen duten arauetan araututako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago. Beraz, kontratuaren enpresa esleipendunak eta izan litezkeen azpikontratistek hizkuntza bien koofizialtasuna zaindu beharko dute kontratua gauzatzean sortzen diren txosten, idazki, datu-bilketa, estatistika eta



abarretan, euskara eta gaztelania, eta herritarren eskubideak eta elebitasuna errespetatu beharko dituzte. Betebehar hori bete ezean, kontratuaren aurrekontuaren %2ra arteko zigorra ezarriko da.

10.3. JASOTZEA ETA BERME-EPEA

Prestazioa amaitu ondoren, jasotze-akta egingo da, eta bertan jasoko da pleguen arabera gauzatu dela.

Gehienez ere HILABETE 1eko epea ezartzen da, jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, esleipendunak zerbitzua emateko erabilitako informazio eta fitxategi guztiak Etxebarriako Udalari itzultzeko, formatu berrerabilgarrian edo eskatzen zaion formatuan, edo suntsitzeko, hala eskatzen bazaio.

Betebehar hori ez betetzea arau-hauste OSO LARRIA izango da, eta arau-hauste mota horretarako aurreikusitako zigorrak ezarri ahal izango dira.

10.4. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren xede diren prestazio osagarrien azpikontratazio partziala baimentzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. artikuluan ezarritako baldintzetan. Azpikontratazioa honako oinarritzko baldintza hauek betez egin beharko da:

- a) Esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinaraztea Etxebarriako Udalari egin nahi duen azpikontratu bakoitzari buruzko datu hauek:
 - Azpikontratista identifikatzea, nortasunari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko datuekin.
 - Azpikontratatzailearen egin beharreko kontratuaren zatiak identifikatzea.
 - Azpikontratatu beharreko prestazioen zenbatekoa.
 - Kontratuari atxikitako pertsonen izenen zerrenda, haien prestakuntzari eta esperientziari buruzko datuekin batera, kontratua formalizatzeko lizitazio-prozeduran eskatutako baldintzetan.
- b) Ezin izango da azpikontratatu Administrazioarekin kontratatzeko gaitasunik gabe utzitako pertsona edo enpresekin, ez eta azpikontratatzaren diren prestazio zehatzak betetzeko behar den gaitasun, kaudimen eta gaitasun profesionalik ez dutenekin ere.
- c) Azpikontratatzaren duen kontratatzaileak, azpikontratatzaren dituen lanak hasi aurretik, egiaztatu beharko du lan horiek egingo dituzten langileak Gizarte Segurantzaren afiliatuta eta alta emanda daudela, apirilaren 29ko 5/2011 Errege Lege Dekretuak, ezkutuko enplegua erregularizatzeko eta kontrolatzeko eta etxebizitzaren birgaitzea sustatzeko neurriei buruzkoak, ezarritakoa betez.
- d) Kontratista langileen ordezkariak azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-arloko legeriaren arabera.
- e) Azpikontratista kontratatzailearen aurrean soilik egongo dira behartuta, eta hark hartuko du bere gain Udalaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, administrazio-klausula zehatzen agiriarekin eta kontratuaren baldintzekin bat etorritik. Udalak azpikontratazioak daudela jakiteak ez du kontratatzailearen erantzukizun



esklusiboa aldatzen.

- f) Kontratastak hitzartutako prezioa ordaindu beharko die azpikontrastei, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan gutxienez egiten dituzten prestazioengatik. Hori betetzen dela bermatzeko, kontratu honen esparruan azpikontratatu diren enpresek edo autonomoek aurreko hilean egindako lanen ordainagiria aurkeztu beharko dio kontratastak udalari fakturazio bakoitzarekin.

10.5. KONTRATISTAREN ONDORENGOTZA

Enpresen edo horien jarduera-adarren bategite, zatiketa, ekarpen edo eskualdatze kasuetan, ondoriozko erakundearekin indarrean dagoen kontratuak jarraituko du, eta kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badira.

Kontratastaren betebeharra da bere nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa Administrazioari modu frogagarrian jakinaraztea, eta dagozkion fakturak ordaintzeko lege aurreikusitako epeen zenbaketa eten egingo da, subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte.

Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua esleitzen zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua ebatziko da, eta kontratastaren erruz suntsiarazten den kasutzat hartuko da ondorio guztietarako.

10.6. KONTRATUA GAUZATZEAN EGINDAKO ARAU-HAUSTEAK

Kontratuaren betebeharrak eta prestazioak betetzen ez badira, Udalak alde aurretik agindeirik egin gabe, kontratua suntsiarazi egingo da edo zigor hauek ezarriko dira:

ARINAK: 150€-tik eta 750 €-ra bitarteko zehapena ekarriko du.

Udaleko langileekiko edo kontratua gauzatzeko harremanetan dagoen beste edozein pertsonarekiko begirune falta arina.

Kontratuaren pleguetako arau orokor eta berariazkoak ez betetzea, larritzat edo oso larritzat jotzen ez badira.

Kontratuaren arduradunak egindako adierazpenak atzeratzea edo desobeditzea, nahitaez (larria izan gabe), edo hitzartutako lanak gaizki egitea.

LARRIAK: 751€-tik 1.500 €-ra bitarteko zehapena ekarriko du.

Udalak egin beharreko ikuskapenak oztopatzea.

Exekuzioan atzerapen larria (3 aste baino gehiago) edo Udalak emandako aginduetan



desobedientzia larria.

Eskainitakoez bestelako pertsonak kontratura atxikitzea Udalaren alde aurreko baimenik gabe, salbu oso larria denean.

OSO LARRIAK: zehapena 1.500 €-tik 3.000 €-ra bitartekoa izango da.

Eskainitako proiektuburua edo laguntzailea ez den beste bat kontratuari atxikitzea, Udalaren alde aurreko baimenik gabe.

Kontratua gauzatzen parte hartzen duten pertsonen bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak diseinatu eta aplikatzeko konpromisoa ez betetzea.

Datuen babesarekin eta zerga-datuen izaera erreserbatuarekin lotutako betebeharrak exekuzio-baldintza berezitat hartuko dira, eta horiek ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekarriko du.

11. AURREIKUSITAKO KONTRATU-ALDAKETAK

Prezioa zehaztasunez kuantifikatzea ezinezkoa denez, eta ikuskapen-lanen emaitzaren aurreikuspenean oinarrituta ezarri denez, ezarritako prezioa % 10 aldatzea aurreikusten da.

12. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiaraziko da baldintza-agiri honetan eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 306. artikuluetan ezarritako kasuetan, eta kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta.

Gainera, kontratazio-organoak kontratua suntsiarazi ahal izango du, baldin eta kontratua gauzatzeko finkatutako epe osoa edo epe partzialak ez betetzeak epe osoa bete ezina eragingo duela arrazoizkoa izan daitekeela uste bada, eta, betiere, kontratazio-organoak zigorrik ezartzen ez badu.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211 f) artikulua babesean, kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira kontratazio-organoak funtsezko betebeharrak gisa ezarritakoak.

Kontratistaren erruz suntsiarazten bada kontratua, behin betiko bermea konfiskatuko da, Administrazioari eragindako kalte-galerengatik kalte-ordainaren kalterik gabe, bermearen zenbatekoa gainditzen duten neurrian.



13. DATUEN BABESA

- Datuak babesteko araudia

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 25. xedapen gehigarriaren arabera (horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), datu pertsonalen tratamendua dakarten kontratuek oso-oso errespetatu beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa eta bere araudi osagarria.

Kontratazioaren ondorioz kontratistak datu pertsonaletara sartu behar badu, eta datu horien tratamenduaren arduraduna erakunde kontratatzailea bada, hura hartuko da tratamenduaren eragileztat. Kasu horretan, datu horiek eskuratzeko ez da hartuko datuen komunikaziotzat, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoa betetzen denean. Nolanahi ere, horren aurreikuspenak idatziz jaso beharko dira.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, datuen tratamendua mugatzeko eta haren aurka egiteko eskubideak, bai eta datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakiak ez hartzeko eskubideak ere, hala dagokionean, Etxebarriako Udala (Peñanekua plaza, 1 - 48277 Etxebarria, Bizkaia) balia ditzake, edo, bestela, helbide elektronikoa honetan: udala.etxebarria@bizkaia.org.

- Kontratu honi dagokionez:

Zerbitzua emateko behar diren datuei dagokienez, adjudikazioduna tratamendu-eragilea izango da, Datuak Babesteko Lege Organikoan xedatutakoaren ondorioetarako. Hori dela eta, komunikatzeak edo datu pertsonaletarako irispidea izateak ez du esan nahi, inola ere, datu horiek esleipendunari lagatzen zaizkionik, ezta datu horiek gordetzeko ere; aitzitik, datuak entregatze hutsa baino ez da, kontratua betetzeko ondorioetarako soilik. Udalak emandako datuak bere jarraibideen arabera baino ez ditu erabiliko.

Datuak ez aplikatzea edo erabiltzea kontratu honetan agertzen den zerbitzua emateko ez den beste ezertarako; datuak beste pertsona batzuei ez jakinaraztea, ezta gordetzeko bada ere; datuen kopia hirugarrenei ez ematea; eta entregatutako fitxategietan jasotako datuak zabaltzea edo beste edozein modutan ustiatzea, kontratatutako zerbitzua amaitu ondoren ere.

Esleipendunak zaindu beharko du Ikuskapen Plana isilpekoa dela. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren (2/2005) 94. artikuluan ezarritakoaren arabera. Enpresak unero hartu beharko ditu mekanismo egokiak izaera erreserbatu hori bermatzeko.

Kontratua amaitzean, enpresak suntsitu egin beharko ditu datu pertsonalak, edo Udalari itzuli. Udalak datuak suntsitzea erabakitzen duela berariaz adierazten ez badu, datuak itzuli egin beharko dira. Ondorio horietarako, Etxebarriako Udalak bere gain hartuko du dagozkion

ETXEBARRIA



Udala

administrazio-espedienteak irekitzeko oinarri diren dokumentu guztiak gordetzea eta zaintzea, bere erantzukizunpean.

14. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek administrazio-izaera du, eta plegu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da prestaketa, esleipena, ondorioak eta azkentzea, eta, bertan aurreikusten ez denerako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea aplikatuko da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena eta 817/2009 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren indarrean dagoena; ordezkio moduan, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko-Auzien Jurisdikzio Ordenak izango du kontratu honetako alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 27.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

ETXEBARRIA



Udala



I. ERANSKINA

ESKAINZA EKONOMIKOAREN ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN EREDUA

« _____, jakinarazpenetarako honako helbidea duena _____, _____, zbk. _____, NAN zbk. _____ duena, IFZ zbk. _____ duen _____ entitatea ordezkatzeko, Etxebarriako Udalaren ZERGA IKUSKARITZARI AHOLKULARITZA TEKNIKOA, JURIDIKOA ETA INFORMATIKOA EMATEKO kontratazioari buruzko espedientea ezagutzen dudanez, kontratuaren oinarri diren pleguak ezagutzen ditut eta osorik onartzen ditut, lizitazioan parte hartuz.

ADIERAZTEN DUT:

Prezio honetan exekutatzeko konpromisoa hartzen dudala, eta prezioaren barruan kontzeptu guztiak daudela ulertu behar dudala, zergak, gastuak, tasak eta edozein arlo fiskaleko arielak barne, baita kontratistaren mozkin industrialak ere:

	Ordainsariaren % eskainia
A) Zergaduna etorkizunean jarraipena izango duten errolda fiskaletan sartzea dakarten zenbateko likidoak eta zorpekoak	
B) Zergaduna etorkizunean jarraipena izango duten errolda fiskaletan sartzea ez dakarten zenbateko likidoak eta estalitakoak	

_____n, 2021eko _____ren ____a.

(Lizitatuzailearen sinadura eta zigilua)